

bilatu... Bilatu

Plaza

Astelehena, 2012ko urtarrilak 9 - 15:48

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#)
[PDFn](#)
[Iragarki laburrak](#)
[Hitza](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | **[Plaza](#)**

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

2012-01-06

Julian Iantzi aurkezleak zabalduko du txotx garaia Astigarragan

Asteazkenean botako du «gure sagardo berria» esaera, Petritegi sagardotegian, zukua dastatu ondoren

XABIER MARTIN DONOSTIA

Bertsolaria lehena (Andoni Egaña, 1994) eta sukaldaria azkena (Karlos Argiñano, 2011). Astigarragan txotx garaia zabaldu duten pertsona ezagunen zerrendan sartuko da aurten Julian Iantzi ETBko aurkezlea (Woodland, Kalifornia, 1967). Datorren asteazkenean zabalduko dute txotx garaia, urtarrilaren 11n; Petritegi sagardotegian izango da irekiera ekitaldia. «Gure sagardo berria» esaera botako du han telebistako aurkezle nafarrak. Sagardozaile «amorratua» denez, «ilusio handia» egin dio lantziri txotxa zabalteko proposamenak. Irekiera ekitaldiko protagonistak izan direnen zerrendari begiratzea baino ez dago ohorea dela jakiteko: Jose Mari Bakero, Julian Retegi, Juan Mari Arzak, Joane Somarriba, Aimar Olaizola, Ainhoa Arteta, Pedro Miguel Etxenike... Hainbat alorretako izen handiak azaltzen dira.

Sagardo Mahaia osatzen duten Astigarragako, Hernaniko eta Ergobiako sagardogileak Sagardoetxean elkartuko dira asteazken honetan Astigarragako alkatearekin. Ekitaldian ez dira faltako erakundeetako ordezkariak, prentsa eta urtero txotx garaia zabalteko duen pertsona, Julian Iantzi.

Eguerditik aitzin, 2011ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarra eta sagardo berriaren nortasuna azalduko dituzte. Ordubeteko geroago, ekitaldi sinboliko bat izango da: sagarrondo bat landatuko dute, eta lantziren eskua izango da horretan. Haren zeregin nagusia, ordea, 13:45ean iritsiko da, Petritegi sagardotegian. Sagar-do garaiko lehenengo upela ireki eta haren zukua dastatuko du. «Gure sagardo berria» esaterarekin bat hasiko da 2012ko sagardo garaia.

Albisterik...

IRAKURRIENAK
Bozkatuenak
Bidalienak

- 1 Urkixo: "Polizia izan da itxaropen aldi hau argitu duena"
- 2 Euskarak inbertsioak behar ditu
- 3 Liga Arabiarrek misioa mantenduko du baliabide eta behatzailerik gehiagorekin
- 4 Hiru dendek ireki zituzten atzo ateak Bilbon, eta bilkurak egin zituzten sindikatuek atarian, jaiegunak errespetatzeko eskatuz
- 5 "Kultur ereduak aldatzen saiatzeko balio behar du proiektuak"

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefona: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa

Laguntzaileak:

EUSKO LAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO
 KULTURA SALA
 Ministerio Patrimonioko Kulturaren
 DEPARTAMENTO DE CULTURA
 Ministerio de Política Lingüística

Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa